


Emantzipatutako gazteen ehunekoak gora egin du, 15 eta 29 urte bitartekoak % 19an kokatu arte

Gurasoen etxetik hein handiagoan emantzipatzen direnak emakumeak eta gazte helduak dira (25 eta 29 urte bitartekoak).

Euskadiko gazteak 2008 azterlanaren emaitzek aditzera ematen dutenez, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 19,1ek diote gurasoen etxetik kanpo bizi direla eta % 78,5ek gurasoenean.

2008an 15 eta 29 urte bitarteko adina zuten biztanleak erreferentzia gisa harturik (354.176 gazte, INEren urtarrilaren 1eko Biztanleen Udal Erroldaren arabera) eta % 95,5eko konfiantza maila eta % 2,6ko lagin-akatsarekin, emantzipatuta dauden 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kopurua 58.439 eta 76.856 artean dagoela kalkula daiteke.

Datu hauek 2004koekin alderatuta, gurasoekin bizi diren gazteen proportzioak behera egin du eta gurasoen etxetik kanpo beren kabuz bizi direnenak, aldiz, gora.



Iturria: Berton egina, *Euskadiko gazteak 2004* eta *Euskadiko gazteak 2008* txostenen emaitzetan oinarrituta. Gazteen Euskal Behatokia

Datuok sexuaren arabera aztertuz gero, antzeman daiteke 15 eta 29 urte bitarteko nesken % 75,2 jatorrizko familiaren etxean bizi direla. Mutilen artean ehuneko hori % 81,9koa da.

Beraz, emantzipatutakoak gehiago dira, proportzioz, 15 eta 29 urte bitarteko nesken artean (%22,0) adin tarte bereko mutilen artean baino (% 16,3).

Adin-taldee dagokienez, gazteenetatik (15 eta 19 urte bitartekoak artetik) ia guztiak familiaren etxean bizi dira. Adinez nagusiagoen adin-taldeetan (20 eta 24 urte bitartekoak eta 25 eta 29 urte bitartekoak artean) gora egiten du jatorrizko familiaren etxetik kanpo bizi diren gazteen proportzioak.

20 eta 24 urte bitartekoak kasuan, % 14,1 jatorrizko etxetik at bizi dira; 25 eta 29 urte bitartekoak taldean % 40,8 dira gurasoen etxetik kanpo bizi direnak.


15 eta 29 urte bitarteko gazteen ohiko etxebizitza, sexuaren eta adin-taldean araberak. %. EAE. 2008

	Sexua		Adin-taldeak		
	Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29
Familiarenean (gurasoak, neba-arrebak...)	81,9	75,2	98,6	85,8	56,8
Familiarena ez den etxebizitza batean	16,3	22,0	0,2	14,1	40,8
Asteburuetan familiarena ez den etxebizitza batean eta asteburu eta oporretan familiarenean	0,8	1,6	1,0	2,1	0,4
Beste egoeraren bat	1,1	1,2	0,2	1,0	2,0
Guztira	100	100	100	100	100

Iturria: Berton egina, *Euskadiko gazteak 2008* txostenaren emaitzetan oinarrituta. Gazteen Euskal Behatokia

30 urtera arteko gazteen emantzipatzeko gogoei dagokienez, % 64,4k diote familiarena ez den etxe batean bizi nahi dutela.

Jatorrizko etxetik kanpo bizitzeko gogoak behera egin du azken lau urteotan. Era berean, gora egin du familiarenean bizi nahi dutela diotenaren portzioak.



Iturria: Berton egina, *Euskadiko gazteak 2004* eta *Euskadiko gazteak 2008* txostenen emaitzetan oinarrituta. Gazteen Euskal Behatokia

Emantzipatuta ez dauden 30 urtera arteko gazteetatik, % 45ek emantzipatu nahi dute. 2008an 15 eta 29 urte bitarteko adina zuten biztanleak erreferentzia gisa harturik (354.176 gazte, INEren urtarilaren 1eko Biztanleen Udal Erroldaren arabera) eta, era berean, % 95,5eko konfiantza maila eta % 2,6ko lagin-akatsarekin, emantzipatu nahi duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kopurua 119.686 eta 134.364 artean kokatzen dela kalkula daiteke.

Erlazionaturiko datuak kontsultatzeko:

15 eta 29 urte bitarteko gazteen etxebizitza emantzipazioari buruzko adierazle estatistikoak
Euskadiko gazteak 2008 txostena

Erlazionaturiko estekak:

Gazteen Euskal Behatokiaren adierazle estatistikoaren sistema
Gazteen Euskal Behatokiaren ikerketa soziologikoak